



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Kontseiluaren informazio- buletina



Helbide elektronikoa: cvfcp-san@ej-gv.es – Web-orria: http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-pkinve02/eu/contenidos/informacion/formacion_continua/eu_1265/for04_e.html

2012ko otsaila 2. alea

Ale honetan:

- 2011ko jardueren laburpena
- Hobekuntzaren amaierako txostena
- Jarduera ez-presentzialen memoria-eredua
- Logotipoaren eta kredituen erabilera
- Berrikuntzak, aplikazio informatikoan
- 2012ko lan-plangintza

2011ko jardueren laburpena

Kontseiluaren oharra

Joan den urriko informazio-buletinaren 1. alean adierazi genuen moduan, Kontseilu honen asmoa da etengabeko prestakuntza sanitarioa ematen duten erakundeei eta profesional sanitarioei bere jardueraren berri ematea.

Gaur bigarren alea duzu esku artean, eta urritik izan diren berrikuntzak eta aurtengo urterako lan-plangintza aurkezten dizkizugu bertan. Horretaz gainera, eta jasotako iradokizunei erantzuteko,

zalantzak sortzen zituzten gai batzuk ere landu ditugu; esaterako, logotipoaren eta kredituen erabilera.

Sebas Martin. Euskal Kontseiluko Ebaluazio Batzordeko presidentea
Marijo Bombín. Euskal Kontseiluko idazkaria

Kontseiluaren 2011ko jardueren laburpena

2011ko jardueren laburpena:

Batzorde Iraunkorra berritu da, eta berriro ekin zaie jarduerari. Martxoan bildu zen Batzordea, informazio-buletinaren 1. alean argitaratutako kreditatzeko eskakizun berriak onartzeko.

Osoko Batzarra ere berritu da, eta azaroaren 29an bildu zen, profesional sanitarioen etengabeko prestakuntzarako lehentasunezko garapen- eta kreditatze-arloak eta -edukiak proposatzeko.

Bilera hartan, gaixo kronikoak osasun-sistemaren erdigunean jartzeko estrategiak dakarren pentsamolde-aldaeratik abiatuta,

eta Osasun eta Kontsumo Sailak dagoeneko abian jarritako 14 proiektu estrategikoei lotuz, aldaketa-prozesuari laguntzen dioten lehentasunezko prestakuntza-arlo batzuk zehaztu ziren:

- Tresnak/baliabideak menderatzea
- Gaioxo prestatzeko eta ahalduentzeko gaitasunak.
- Gaitasun sistematikoak eta antolaketa-gaitasunak.
- Ebaluazio-gaitasunak, produktu, teknologia eta esku-hartze berriak txertatzeko.
- Ezagutza sortzeko eta zabaltzeko gaitasunak.
- Ikerketa/ekintza gaitasunak
- Eginkizun profesional berriak

14 bilera egin ditu **Ebaluazio Batzordeak**:

- Bilera birtualetan (8), eskaerak ebatzi soilik egin da: ebaluatzaileen artean sortutako desadostasunak argitu, edo zuzenean ebaluatu.
- Bertaratzeko bilerek (6) zailtasunak sortzen dituzten gai zehatzei buruz hausnartzeko aukera eman dute.

Aktaren eranskinean txertatu dira, bileran bertan berrikusi gabe ebatzita, azken bi urteetan ebaluatutako jardueren edizioak eta behin betiko kreditazioak, behin-behinekoetan aldatarik egin gabe.

Kontseiluaren 2011ko jardueren laburpena

Jasotako eskariak: **1.290**. 2010ean baino % 15 gehiago.

Kreditatutako jarduerak: **% 96**

Ezezkoa jaso dutenak: **% 3,5**

Uko egiteak: **% 1,5**

Ezezkoa jasotzeko arrazoiak:

- 2 ordu baino gutxiagoko iraupena (11)
- Graduondoko prestakuntza, master baten modukoa (10)
- Osasun-zientzietan zehaztu gabeko gaiak (8)
- Lan-osasuna/norbere zaintza (8)
- Prestakuntzako espezialistentzat izatea (3)
- Kalitatean 1a ez gainditzea (2)
- Behin-behineko kreditatzearen ostean, eskakizunak ez betetzea (2)
- Prestakuntzakoak ez diren edukiak (1)
- Ordezko terapiak (1)

Jarduera-motari dagokionez:

- Ikastaro eta mintegiak: % 74
- Lantegiak: % 13
- Biltzar, jardunaldi eta bilera zientifikoak: % 8
- Saio klinikoak: % 5


Gehienak presentzialak dira, baina gero eta gehiago dira mistoak (% 5) eta ez-presentzialak (% 1)

Iraupenari dagokionez:

- 10 ordu baino gutxiago: % 64
- 10 eta 20 ordu artean: % 25
- 21 eta 40 ordu artean: % 6
- 40 ordu baino gehiago: % 5 (gehienez 100 ordu konputagarri)

Kreditatutako jardueren **gai-arloei** dagokionez, % 70 arlo klinikokoak/arreta zuzenekoak dira, eta gainerako % 30a, zeharkako arloetakoak/generikoak.

Jarduerak lanbideka:




Multiprofesionala: bereziki erizaintza eta medikuntzako baterako jarduerak (% 42,5)

Beste batzuk: fisioterapia, odontologia, erizaintzako zainketa osagarriak, terapia okupazionala, hortz-higienea, hortz-protesia, biologia, albaitaritza, psikologia klinikoa, optika eta optometria (% 5)

Ia **50.000** profesional sanitariok parte hartu zuten 2011ko jarduera kreditatuetan.


Kreditatutako zehar-jardueren gai-arloak



2011ko jardueren laburpena

2011ko jardueren laburpena


Jarduera kreditatuen **osagai kualitatiboa** honela banatzen da:



Batezbestekoa **1,55**ekoa da; horrenbestez, jaitsiera txiki bat izan da 2010. urtearekin alderatuta. Lanbideen arabera, honela banatzen da:


Erizaintzako OKLen batezbestekoa: **1,52**
 Medikuntzako OKLen batezbestekoa: **1,57**
 Farmaziako OKLen batezbestekoa: **1,42**
 Multiprofesionaleko OKLen batezbestekoa: **1,53**

Erakunde hornitzaileei erreparatu, honela banatzen dira 2011ko jarduera kreditatuak:



Hobekuntzaren amaierako txostena:

Azken urteotan OKLe izandako jaitsiera nabarmenari erantzuteko,



Kontseiluak erabaki du OKL 1,4tik behera duten jardueren kasuan (% 26) **hobekuntzaren**

amaierako txosten bat bidaltzea, jardueraren egiaztagiri kreditatzailearekin batera.

Txosten horretan, item bakoitzari esleitutako puntuak eta jarduerak ebaluatu dituztenek edo Batzordeak berak egindako hobetze-iradokizunak jasoko ditugu.

Hobekuntzaren amaierako txostena

Jarduera ez-presentzialen memoria-eredua**Jarduera ez-presentzialak:**

Informazio-buletinaren 1. alean jarduera mistoei buruz aurreratu genuen moduan, lan-ordu pertsonal ez-presentzialak kontuan izango dira baldin eta egindako tutoretzen eta landutako gaien/kasuen **memoria** bat aurkezten bada, denbora hori eskaini zaiola egiaztatu ahal izateko.

Memoria horrek erantsitako eredura egokitu beharko du.

Ikasleak egin behar du, eta tutorearen oniritzia izan (bi aldeek sinatu behar dute)

TUTORETZEN ETA LANDUTAKO GAIEN/KASUEN MEMORIA

JARDUERAREN IZENBURUA.....

IKASLEAREN IZEN-ABIZENA

EGINDAKO TUTORETZEN ZERRENDIA:

Zk .	DATA	LANDUTAKO GAIEN LABURPENA	ERABILITAKO BITARTEKOA	ERABILITAKO DENBORA
1			Bertaratzea Helbide elektronikoa Faxe Telefonoa	
Ikaslearen sinadura			Tutorearen oniritzia	

Logotipoaren eta kredituen erabilera**Logotipoaren eta kredituen erabilera:**

Etengabeko Prestakuntzarako Batzordearen logotipoa sustapen-materialetan, programetan eta diplometan erabili ahal izango da soilik **jarduera kreditatu** eta Eusko Jaurlaritzak dagokion kreditatze-egiaztatzea eman ondoren.

Erantsitako ereduan ikusten den moduan, testu honek agertu behar du logotipoaren ondoan: "Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Kontseiluak kreditatutako jarduera, (kop.) kreditu dituen".

Logotipoaren eta kredituen erabilera okerra, **arau-hauste arintzat** hartzen da Kontseiluaren arauetan.

Diploma/Egiaztatze-eredua

Jardueraren **erakunde hornitzailearen/antolatzaileen logoak** (eskatzaila) eta, hala dagokionean, babesten edo gidatzen dituzten erakundeak (kopuru eta kokapen librea)

Testu librea, datu hauek jasotzen dituen:

- Ikaslearen izena
- Jardueraren izenburua (*Espediente-zbk/kreditatze-erregistroa*)
- Egutegia (hasiera- eta amaiera-datak, dagokion EPBk emandako Kreditatze Egiaztagirian jasotzen direnak)
- Lekua (bertaratu gabeko jardueren kasuan, hala zehaztu beharko da)
- Diploma eman den lekua eta data
- Sinadura: erakunde hornitzailearen arduraduna/k edo ordezkaria/k

Kanpo-laguntzaren kasuan. Babeslearen logoa (edo babesleek logoak) diplomaren/egiaztagiraren behealdean soilik jarriko da, ongi bereizita (*erakunde hornitzailearen logoak baino txikiagoa izan behar du*)

EPBren logoa + testua: "Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Kontseiluak kreditatutako jarduera" testua kreditu-kopuruarekin batera (*behealdean, nahi den lekuan*)

Berrikuntzak, aplikazio informatikoan

Berrikuntzak, kreditatzeak kudeatzeko aplikazio informatikoan:

Q51 aplikazio informatikoa erabiltzen duzenak (erakunde hornitzaileak, ebaluatzaileak) ohartuko zinetenez, aldaketak egin dira azken asteotan, iragan urritik indarrean dauden kreditatzeko eskakizun berrietara egokitzeko, ezin izan baita lehenago egin.

Jarduera kreditatzeko egiaztagiriari laguntzen dion gutunaren testua aldatu da, erakunde hornitzaileari gogorarazteko zer dokumentu aurkeztu behar dituen dokumentuen ikuskaritza sistematikoak egin ahal izateko.

Baita egiaztagiria bera ere, jarduera zer lanbiderentzat den zehazteko, eta logotipoa eta kredituak erabiltzeko.

Modalitateka kreditatzen diren jardueratarako (kongresuak eta saio klinikoak bezala), atal berri bat gehitu da aipatutako dokumentazioa eskaeran bertan sartu ahal izateko. Atal hori jarduera burutu ondoren aktibatuko da.

Beste jarduera guztietarako **parte-hartzaileen botoia** gehitu da, jarduera amaitu ondoren, parte-hartzaileen izenak eta NANak jasotzeko.

Behin-behineko kreditatze-egiaztagiria **komunikazio** batez ordeztu da.

Komunikazio horren bidez, erakunde hornitzaileari jakinarazten zaio zenbat kreditu emango litzaizkiokeen azken dokumentazioa aztertu ondoren eskaeran islatzen diren irizpide guztiak betetzen direla egiaztatuta.

Horretaz gainera, bidali dizkiguzuen iradokizunei jarraiki, beste aldaketa txiki batzuk ere egin dira, eta espero dugu eskaerak egiteko prozedura erraztu eta arinduko dutela (grabazio automatikoa segundoka, item batzuk argitzeko testuak, urte bereko jarduerak kopiatzeko ezintasuna, etab.).

2012ko lan-plangintza

2012rako lan-plangintza:

• Kreditatze-prozedura hobetzea:

- o Indarrean dauden **irizpideak berrikustea** (egoiliarren kreditatzea, jardueren iraupena, kreditatzeen indarraldia, etab.).
- o **Dokumentuen ikuskaritza sistematikoak** egitea eta emaitzak balioztatzea.
- o **Araubide zigortzailea** abian jartzea eta emaitzak balioztatzea.
- o 2011n **jarduera mistoetarako** abian jarritako kreditatze-prozedura amaitzea.

- o Ebaluazio-irizpideak berrikustea eta xehetasun gehiago ematea, **ebaluazio-tresnetako** item bakoitza mailakatzeko, hobeto eta desadostasun gutxiagoz ebalua dadin (2010ean hasitako lanaren jarraipena)
- o **Hobekuntzaren amaierako txostena** abian jartzea eta emaitzak balioztatzea.
- o **Kongresuak ebaluatze prozedura** gidatzea puntuazio finkoen bidez, saio klinikoetarako bezala.

- Berriak **informazio-buletinen** bidez zabaltzea: 3. alea 2012ko maiatzean aurkezte aurrekusten da.

• Aplikazio informatikoa hobetzen jarraitzea.

- **Erakunde hornitzaileekin** lan egitea: prestakuntza-jardueren plangintza egiteko prestakuntza eskaintzea.

• Lan jardunaldia ebaluatzaileekin ospatzea: martxoko hirugarren asterako dago aurreikusia.

- **Osoko Batzarraren eta Batzorde Iraunkorraren** bilerak antolatzea: Batzorde Iraunkorra bilduko da ebaluatzaileekin jardunaldia izan ostean; Osoko Batzarra, berriz, uda aurretik bilduko da ziur asko.